



Astekaria



elgoi



Afizioa eta pasioa

IRAKASLE

ELKARTEA


ZEZENBIDE

San Frantzisko 43 • ☎ 74 27 20 • ELGOIBAR

auto-eskola

*Izena emateak
%10eko beherapena*





Atxatxiamaika

BEGIRALE TALDEA-ZERBITZUA

HELBURUAK

- Elgoibarko OHoko hurrek aisialdia jolaserako, lagunartean aberasteko, giza-emakume bezala hezitzeko eta gizartean integrazeko aprobetxatzea.
- Elgoibarko OHoko hurren euskara erabilera areagotzea.
- Haurrentzat antolatzen diren iharduerak begirale kualifikatuekin burutzea.

NOLAKOA

- Begirale guztiak 19 eta 26 urte bitarteko **elgoibartarrak** dira.
- Begirale taldea osatzen duten guztiak **begirale titulua** dute.
- **Euskara** izango da begirale eta hurren artean erabiliko den hizkuntza.
- Iharduera guztiak **aseguratuta** daude.



FUNTZIONAMENDUA

Talde honek bi aukera eskaintzen ditu:

1.- Zerbitzu hutsa: Edozein erakunde haurrentzako iharduera edo ekintzaren bat antolatu nahi badu, begiraleak eska ditzake. Begiraleak, antolatzaileen aginduetara egongo lirake kasu honetan.

Begirale lan/orduaren behin behineko prezioa: 1.250 pta.

2.- Zerbitzua eta egitasmoaren prestakuntza: Zer eta nola egin pentsatzeko denborarik ez dutenez, egitasmoak ere prestatzen ditugu. Kasu honetan aurrekontu bat prestatuko zaio eta oniritzia jaso ondoren lanean hasiko ginateke.

ESKARIA EGITEKO

• Elgoibarko Izarrak Ubitarte 4an duen lokalera azalduz. Ordutegia:

Goizez: 9,30 - 13,00

Arratsaldez: 16,00 - 20,00

• Elkarteko telefonora deituz:

74 16 26



Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak pentsaturiko eta antolaturiko Begirale Taldea.
Elgoibarko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.



elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementería.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martín,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegi, Andres

Alberdi, Esteban Antxustegi,

Pello Arrieta, Felix

Arrizabalaga, Mikel Artola,

Izaskun Elizburu, Jon Etxabe,

Jon Eugi, Ina Garagarza,

Joseba Gorosabel, Lorea

Gorostiaga, Amaia

Gorostiza, Xabier Gorriti,

Ana Igartua, Maite Iriondo,

KOKOE, Joseba Konde,

Edurne Korta, Imanol

Larrañaga, Javi León,

Antonio Matias, Susana

Mujika, Maite Solozabal,

Karmelo Urdangarin, Aitor

Zabaleta, Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Nolako paisaia, halako ...

Rzango dira pare bat aste edo, baserritar bat etorri zitzaidala ea basoak zaintzeko edo landatzeko Europako Batasunak zer-nolako laguntzak eskaintzen dituen jakin nahian. Honekin batera beste honako galdera hau ere luzatu zidan: “Ba al dut nolabaiteko defentsarik Adiministrazioaren aurrean nire basoa bota dezadan debekatzen didanean?” Baserritarraren asmoa bere 90 hektareako pagadi zaharra botatzea zen eta ondoren pinu gazteak landatzea. Horrela jokatzearen arrazoia ekonomikoa zen, noski. “Bizi egin behar dut” zioen. Pinadia landatuz gero, 30 urteren buruan uzta jasoko dut, haritza edo pagoarekin, ordea, hiru bat belaunaldi beharko nituzke. Izan ere, aurreko belaunaldietatik jasotako pagadi basoak ez zion berari inolako errentabilitaterik eskaini - perretxikoren bat edo beste izan ezik-. Beraz, basoa botatzea besterik ez zitzaion bururatzen eta hori egiten ere, laga ez Administrazioak!

Argi dago, beraz: enpresariaren errentabilitate ideia heldua da jadanik baserrira. Hala ere, nor da Administrazioa baserritarrari basoak botatzen ez uzteko? Hau ez da kaleko enprekin gertatzen. Eta ez al gara, bada, ekonomia liberal batean murgiltzen ari? Horra hor, ondorioz, kezka juridikoa. Esanak esan, nire jabetza pribatua ez al da, bada, nirea? Itaunari erantzungo dionik, nor eta non? Horrelakorik gero!

Egun Administrazioak badu baso publikoak zein pribatuak kontrolatzeko eta horretarako beharrezko diren neurriak hartzeko eskubidea; basozainak hain zuzen, zeregin horietarako propio jarriak dira. Eta horrelako neurrien truke, kasu, basoak,

ingurugiroa eta paisaiak babesteko laguntza batzuk eskaintzen ditu.

Gauzak horrela, gure herritik dakuskigun mendiei argazkia aterako bagenie, Kanadari dagozkion pinadiak batetik eta orain mota bateko eta gero besteko mila arbola ezberdin azalduko litzaizkiguke. Mila arbola, denak nahasian, inolako ordenamendu edota kontzerturik gabe. Bakoitzak nahi duena landatzen du eta nahi duen eran. Zertarako paisaia zaindu? Zertarako armonia gorde? Zertarako gure zuhaitz zaharrak -pagoak, haritzak, gaztainondoak...- birlandatu?


Dudarik gabe, gure herrian beste edozeinetan bezala arbolak badu zeregin aski. Hots: paisaia soineko dotorez jantzi, berdetu, freskotasuna eskaini, airea garbitu, porlana eta etxe itsusiak ezkutatu. Azken batean, basoak bertako klima adierazten digu, udaberria ala udazkena den erakusten, ekonomia egokia ala desagokia den esaten eta abar. Funtsean, zuhaitza heziera eta estetika seinale da, herri osasunaren ispilu eta komunitatearen baloreen neurgailu.

Laburtuz, Administrazioak badu paisaia hobetzearen aldeko neurriak hartzeko indarra. Aldundiak, adibidez, aurtengo dekretu foral bat medio, basoak zaintzeko laguntzak eman ditzake eta udalak ere badu, ene ustez, lan horri laguntzeko bitartekorik.

Bat gaitetzen, bada, denok eta hel diezaiozun gogoz basoak berreskuratzeko ahaleginari. Bestela, oso luze gabe Olentzerok lanbidez aldatu beharko du, arte, pago, haritza eta betidanikako zuhaitzen ezean.

Jon Etxabe

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





KEXAK

Futbolzale batek idatzi digu Mintxetara “Haundi”a ikustera joaten den bakoitzean lotsa sentitzen duela esateko. Elgoibartar batek, bik eta gehienez hiruk jokatzeko omen dute, eta elgoibartarrik ez zegoen partidurik ere tokatu omen zaio ikustea. “Zer gertatzen da Elgoibarko jokalariekin?” Direktiba osoa gaitzetsi nahi du, egoera hau lotsagarria iruditzen baitzaio.

Gazte batek deitu digu BARRENen 124. zenbakian bere kexa adierazi zuen emakumeari erantzuteko. Gazte honen esanetan “besteok ere irakurri behar izan dugu gustukoak ez genituen hamaika gauza”, eta zera gehitu nahi du: “iritziak ez dira inoiz denon gustukoak izango eta BARRENen denek izan behar dute tokia”.



TXALOAK

Emakume batek deitu digu Deba ibaia garbitzeko ideia benetan egokia iruditzen zaiola esateko. Beraz, agintariak txalotu nahi ditu. Hala ere, esan eta agindu dutena zuzen betetzea exigitu nahi die, hitza betetzeko orduan ez baitira pertsonarik aipospenak.

ESKUTITZAK

San Pedroko bidea

BARREN aldizkariko 122. zenbakian “Galderak” atalean azaldutako informazioa argitzean asmotan idatzi dut eskutitz hau.

BARRENen honako galdera hau egin zuten: “Ba al dago San Pedroko bidea konpontzeko intentziorik?” BARRENEkoek Hirigintza Saileko teknikariarengana jo zuten eta honen erantzunean argi geratu zen ez dagoela asmorik. Baina horrez gain, bidea konpontzeko PROPOSAMENIK ez dagoela ere esaten da. Idatzi honetan argitu nahi dudana zera da, proposamena egina dagoela bailarako ordezkariak eta Elgoibarko alkateak izan genuen bilera batean. Baina proposamen hau oraindik aurrera atera ez denez, Hirigintza saileko Teknikariak ezin zuen honen berri eduki. Hala ere, argi utzi nahi nuke proposamena egina dagoela.

Bestalde, BARREN aldizkarikei zera esan nahi nieke: hemendik aurrera San Pedro bailararen inguruko informazioa behar dutenean, Udalarri bakarrik galdetu beharrean, bailarako ordezkariari ere galdetzea komenigarria izango litzatekeela, informazioa ahalik eta zehatzena izan dadin.

Jon Loiola

Guk ere baditugu oroitzapenak

Pertsona asko harrিতuta gelditu ginen Enrike kaleratu zutela jakitean, askori begiak malkoz bete zitzaizkien, elkarrekin pasatutako pozak eta tristurak gogoratu.

Esan behar dugu Enrikeri buruz ez dugula ezer txarrik pentsatzen eta oroimen oso onak ditugula.

Oraindik goizegi da ikasketetan arazoak ditugula esateko, baina aldaketak aldaketak dira eta nabaritu egiten da Enrikeren falta.

Orain ditugun tutoreak, ez dira bat ere txarrik, baina gustutuko litzaiguke Enrike gurekin ikasbidaiara eta guri klaseak ematera etortzea, baina badakigu hau gehiegi eskatzea dela. Honez gain, Enrikerekin berriro elkartzea gustutuko litzaiguke.

Honekin eta Enrikeri eskerrak emanez agurtzen gara.

Ikastolako 8. mailako ikasleak

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratua **Maite Vallejok** lagatakoa da. Erretratua **1946.** urtekoa da eta, begibistan dagoen bezala, antzerki ikuskizun batean ateratakoa.

Maitek esan digunez elizak antolatzen zituen antzerki emanaldiak eta urtean pare bat izaten omen ziren.

Erretratua “**El Elgoibarrés**” zinean aterata dago eta antzeztutako obra “*La escalera de Fabiola*” izan zen.

Ikus dezagun zeintzuk diren taula gainean dauden elgoibartarrak.

Ezkerretik hasita: **Jasone Vallejo, Dolores Iriondo, M.Rosa Gurrutxaga, Judith Gorrotxategi** eta **Elena Opakua**.

Erretratu zaharren premian gaude!


Atal hau mantentzea nahi baduzue, zuen laguntza ezinbestekoa zaigu. Beraz, etxean gordeta duzuen aspaldiko argazki hori hatu eta zatozte BARREnera. Guztioek eskertuko dugu.



**ZALDUA
ITURGINTZA**

**GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK**

Urasandi 26. Tel: 74 05 30



Ikasketak herritik kanpo direnean

Institutuko garaia amaitu eta unibertsitatera salto egiten denean, ikasketen maila igotzeaz gain bestelako kezkarik ere sortzen da. Izan ere, normalki, seme-alabek etxetik alde egiten dute, beste nonbaitera joan behar izaten dute ikasketak jarraitzea, hala nola, Donostiara, Bilbora, Gasteizera, Iruñera... Era batera edo bestera, bizimodu berri bati hasiera ematen zaiola esan daiteke. Eta bizimodu hori nolakoa izango den gauza askoren arabera badago ere, eragina dauka autobusez egunero joan-etorriari ibiltzeak, erresidentzia batera joateak edo pisuan geratzeak. Hiru kasuak aztertu nahi izan ditugu. Beraz, alde batetik ikasleak, hau da, seme-alabak zitatutako ditugu eta beraiekin hitzegin eta, bestetik, gurasoak, amak, hain zuzen. Errealitate beraren bi aurpegiak aurrez aurre jarri ditugu. Nork erabakitzen du? Azken hitza nork du?

Amaia Urzelai

Ingeles Filologia Gasteizen

- **Erresidentzian zaude, kontaguzu.**
- Autobusean joan-etorria egitea hasieratik deskartatu nuen palo haundiegia zelako. Gero, pisuaren eta erresidentziaren artean egon zen aukera. Eta erresidentziak komodidade gehiago eskaintzen zizkidanez...
- **Baina lotura handiagoa da, ez?**
- Asteaz zehar gaueko 11etarako erresidentzian egon behar gara eta astebukaeratan 12etarako baina hori ez da arazoa. Halere, bi aste daramatzat eta oso gustura nago.
- **Eta nobatadarik egin al dizute?**
- Oraindik ez baina iritsiko dira, seguru.
- **Gurasoen presiorik?**
- Ez. Beno, aitzak ez zaban nahi pisura juterik. Berak Arrasaten ikasi zaban eta erresidentzian egon zan eta hain izan zan esperientzia ona... uste dabala edozeinentzat berantzat bezain ona izango zala eta egon zian eztabaida batzuk. Hala ere, lagunak gehixo harritsu dia erresidentziara jun bihar nintzala esatian.
- **Zer aldatuko zenuke?**
- Giltza guk izateko aukera izatea, erresidentzian egon gabe.
- **Mutilek ba al dute sartzerik?**
- Logelara ez baina beheko solairura bai.
- **Datorren urtean?**
- Batek daki! Mementuz ondo nago baina aspertzen banaiz, agobiatu egiten banaiz, pisura aldatzeko asmoa daukat, aurtan izan edo datorren urtean.

Isabel Barrutia

- **Argi al zenukaten erresidentziarena?**
- Lehenengo erresidentzia batzuk ikusi nituen eta ez zitzaidan bat bera ere gustatu. Baina aukeratu genuen beste honetan nahikoa askatasun ikusi nuen. Nahiz eta 11k arte izan ordu topea, nere sinadura nahikoa da urte osorako baimena izateko beste nonbaiten lo egin nahi badu.
- **Zerk konbentzitu zintuen?**
- Abatesak esan zidan bera askatasun hezitua izan zela eta berak ere askatsun hori eman nahi ziela ikasleei. Horrek asko animatu ninduen. Ni internatu batean egon nintzen gaztetan eta hura oso estriktoa zen, horrelakorik ez nuke nahiko nire alabarentzat.
- **Mutila balitz?**
- Erabakia berdina izango litzateke.
- **Pisua zergatik ez?**
- Institututik fakultatera joatea nahikoa saltoa da, pisuan sartzea gehiegizkoa iruditzen zitzaidan. Erosketak egin behar, janaria, etxeko lanak eta horrez gain, jendearekin bizitzeak ekar ditzakeen arazoak.

Erresidentzia



Asier Orbea

Kazetaritza Leioan

- Zergatik autobusa?

- Komodidadiagatik. Askoz erosoagoa da etxera etorri eta platera mahai gainian eukitzia.

- Eta pisuaren abantailak?

- Baditxu, etxetik kanpo zaude, lagunartean... Baina, ez zait burutik pasatu ere egin.

- Datorren urtean berdin?

- Ez dakit. Oraindik astebete bakarrik daramat eta, egia esan, nahiko agobiatuta horrenbeste ordu autobusean ibiltzeagatik. Gainera, beti izan naiz inpuntuala eta goizero korrika nabil autobusa hartzeko.

- Beraz...

- Igual hurrengoan pisura. Iku-siko dot, "Sobre la marcha".

Feli Ostolaza

- Nolatan autobusa?

- Auzokideak ere holaxe zabizen eta guriari tokatu zaionian gauza bera egitia pentsatu gendun.

- Besterik gabe.

- Bai, pisua edo erresidentzia ez gendun planteatu ere egin.

- Komodidadeagatik?

- Baitxa. Semiantzat alde haundia da etxera etorri eta dana einda eukitzia.

- Pisua nahiko balu?

- Ez litzake problemarik egongo. Askok ikasiko leuke ze oin biharra ez dakenez gauza asko ez ditxu eitzen etxian.

- Amaren ardurak zeintzuk dira?

- Asier oso responsablia da, serixua eta responsablia. Ez dakat inolako beldurrik berarekin.



Pisua



Eider Eguren

Ingeles filologia
Gasteizen

- Zergatik pisura?

- Batez ere askatasunarengatik, lagunekin zaude eta giro polita sortzen da. Nere kezka handiena ea nola konponduko ginen zen. Momentuz, lan banaketa egin dugu eta primeran.

- Zenbat zaudete?

- Hiru neska eta mutil bat. Ni beste neska batekin nago logela berean.

- Etxean arazorik?

- Ez, eurak ere gustura daude. Gainera, erresidentzia garestiagoa ateratzen da

- Donostian egon bazina ikasten?

- Beharbada autobusez joango nintzake, askoz erosoagoa baita etxera iritsi eta dena eginda izatea.

- Egin al duzu

juergarik?

- Ez, oraindik ez.

Nieves Fernandez

- Alaba zaharrena al da Eider?

- Bai, bera da nagusiena. Berak esan zuen hasieratik pisura joan nahi zuela eta gure aldetik ados.

- Arazorik gabe?

- Bai, bai. Nik uste dut askoz abantaila gehiago dituela. Ondo etorriko zaie etxetik kanpo bizitzeari zer den ikustea, beste batzuekin gauzak konpartitzea, lan egitea...

- Pisuan mutil batekin dago.

- Bai, eta gainera hobe. Ez dakit, errespetu gehiago edo.

- Zein da zuen

ardurarik handiena?

- Hasieran kezka piskat daukazu, nola jango duten, nola moldatuko diren... Baina, gainontzean, Eiderrengan konfiantza osoa daukat.

- Nabari al duzu bere falta etxean?

- Bai, dudarik gabe. Baina, era berean, bera-

rentzat ona dela uste dut.



Ba al dakigu HIESarekin elkarbizitzen?



MARIA REBOLLO

56 urte, etxekoandrea

Nik baietz uste dut. Nire lagun baten alabak HIESa zuen eta gure aldetik ez zen arazorik izan. Maitasun osoz eta bildurrik gabe tratatu genuen.



JOSE L. VILLAR

47 urte, irakaslea

Oraindik ez, aurriritzi eta beldur handia dago. Jen-deak ez ditu transmisio bideak ondo ezagutzen. Guk etxean semeei eman diegu informazioa.



PILAR LARRANAGA

53 urte, etxekoandrea

Ez. Ezezaguna da eta gizartian gauza asko daude onartzeko. Oingo harremanekin semiei asko matxakatu izan dieu prebentzio asuntua.



INAKI RAIGOSO

28 urte, Antzokiko langilea

Aurriritzi asko dago oraindik. Nere lagun batek HIESa balu, zerbait aldatu egingo litzateke, onerako ala txarrerako, baina ezberdina izango litzateke.



ALAZNE URIARTE

29 urte, langabetua


Etxian euki bihar da problema. Tokatu arte ez dakizu zer dan. Danok gera solidarioak baina arazua aurrean eukitzerakuan jende askok atzera eitzen dau.



EMILIO CASTRO

15 urte, ikaslea

Informazioa ematen digute, baina gutxi. Etxeko norbait edo lagun bat gaixorik balego errazago onartuko nuke. Ezezaguna balitz, ez dakit.





Ontziak birziklatzeko asmoa du Mankomunitateak

1995eko ekainetik abendura bitartean gauzatuko den hitzarmena sinatu dute Deba Beheko, Goierriko Sasieta eta Iparraldeko Biarritz, Anglet eta Baionako distritoko Mankomunitateek. Deba Beheko Mankomunitateko presidentea, Jose Alberto Aranbarri "Amatiñok" prentsaurrekoan adierazi zuenez, "Mankomunitateak bilketa selektiboaren aldeko apustu argia egin du". Ontzi eta hondakinen bilketari buruzko europar direktiba 1996rako indarrean sartuko denez, Deba Beheko Mankomunitateak legearen aplikazioaren ondorioak aurreikustearren sinatu du aipatutako hitzarmena. Frantzia direktiba hori martxan dagoenez, Paris inguruko Creteil zonaldean izan dira bai Mankomunitateko presidentea eta bai gerentea ontzien bilketa eta material ezberdinen bilketa selektiboa nola egiten duten aztertzen. Creteil-ek

Deba Behearen antzeko ezaugarriak dituenez, Aranbarri esan zuenez, "hango esperientzia baliagarria izan daiteke guretzat". Ontzien bilketari dagokionean, hondakin izaten bukatzen duten ahalik eta ontzi gutxi generatzea, atez ateko bilketa selektiboa egitea eta herritarren kontzientziazio maila handitzea dira Creteil-en ikusitakoaren arabera Mankomunitatearen helburuak. Hortaz, latak, tetrabrik direlakoak, beira, plastikoa eta antzerako materialak biltzeko programa piloto bat martxan jartzeko asmoa azaldu zuten Mankomunitateko arduradunek. "Oraindik ikusteke dago zein zonaldean eta zein materialekin egingo den selekzioa. Programa hau baliagarria izan daiteke herritarren kontzientziazio maila neurtzeko eta azken finean, horrelako proposamen baten aurrean jendearen erantzuna zein izan daitekeen jakiteko".

■ Udal Musika Bandaren kontzertua igandean

Igandean, hilak 22, goizeko hamarretan ohiko Diana joko dute Herriko Dultzaineroek. Dianaren ostean, bost piezako kontzertua emango du Udal Musika Bandak Txomin Mujikaren zuzendaritzapean. Herriko Antzokian eguerdiko 12,30etan hasiko da emanaldia honako programa honekin: "Tierra fecunda" (R. Dorado), "Gran obertura" (V. Buot), "El sitio de Zaragoza" (C. Oudrid), "Las ruinas de Atenas" (Beethoven) eta "Cordillera de los Andes" (Malando).

■ La Rebogne folk taldearen kontzertua


Musika eta Dantza Fundazioak Haritz taldearen laguntzaz antolatuta, bihar, hilak 21, Suizako La Rebogne folk taldeak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian gaueko 22,30etatik aurrera. Udazkeneko Folk zikloaren barruan Donostiako antzokietatik kanpo ikusteko lehendabiziko aukera izango da honakoa. 1970ean sortutako talde honek Guy Pasche-k fabrikatu eta jotzen duen rebogne izeneko instrumentutik hartzen du izena. Tronpeta, rebognea, akordeoia, klarineta eta kontrabaxua. Bost instrumentu hauen bidez Suizako hegoaldeko kantoietako musika tradizionala entzuteko aukera paregabea izango da La Rebogne taldearekin. Sarrera 350 pta.koa da. 16 urtetik beherakoek, Gazte Txartela erakutsiz gero, eta jubilatuek 200 pta.n eskuratu ahal izango dute sarrera.



**CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak*

Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89



PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behea. ☎ 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAKO BARRUTIAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

■ UNEDeko Euskara Saila istekotan

Bergarako UNEDen berregituraketaren ondorioz, UNEDeko Euskara saila kentzea erabaki du berau zuzentzen duen patronatoak, hau da, Aldundiak, Kutxak eta Bergarako Udalak. Langileen iritziz erabakia “antieuuskalzalea da eta bide juridikoa eta gizalegea kontuan izan gabe” hartua izan denez, ikastetxeko langileek euskarazko ikastaroak normaltasun osoz ematea erabaki dute. Horregatik matrikula epea irekita dagoela jakinarazi nahi dute hilaren 31era arte. Harremanetarako zenbakiak: 76 13 43 edo 76 13 43.

■ Elizako organuaren mendeurrenako ekitaldiak

Datorren larunbatean, hilak 28, San Bartolome parrokiako organuaren mendeurrena ospatzeko, Musika Fundazioak, Eliz Abesbatzak eta Parrokiak hainbat ekintza antolatu dituzte. Burutuko diren ekintzen artean, Easo abesbatzak kontzertua eskainiko du hilaren 28an, arratsaldeko 8etan Parrokian. Ospakizunen ildotik, datorren hilaren 22an, Pello Zabala Arantzazuko organujoleak “Organua euskal liturjia” gaiaren inguruan hitz egingo du. Hizlariarekin batera, Aitor Olea Lekeitioko Santa Maria elizako organujoleak, musikari dagokion atalean parte hartuko du.

Lazo gorria kalera

Lazo gorria, HIESaren adierazgarri modura erabiltzen den bereizgarria, HIESaren aste honetan protagonista bihurtu da. Errotatxok, Drogo-menpekotasunen Prebentziorako Elkartek, hainbat ekintza eta ekitaldi burutu ditu astean zehar. Horietako bat da San Frantzisko kaleko Kutxaren lokalean arratsaldeko 7etatik aurrera egunero irekita dagoen erakusketa. HIESari buruzko hausnaraketak, xehetasunak, deklarazioak eta beste zenbait informazio interesgarri bildu nahi izan dituzte Errota-txoko kideek. Mahai informatiboak eta hitzaldiak ere ez dira falta izan. HIESa

eta akojidako etxeak eta gaixotasunarekin bizitzea izan ziren mahai inguruan eztabaidatu ziren gaiak.

Asteburuari begira, gaur, hilak 20, “La niña de tus sueños” filmea emango da Herriko Antzokian. Igan-dean, hilak 22, herrian HIESaz hil diren guztiak omenduko ditu Errotatxok. Ordu batean hasiko den ekitaldian Haritz Dantzari taldekoek aureskua dantza egingo dute. Bertso Eskolako eta txalapartarien omelaldia ere ez da falta izango. Antolakuntzan parte hartuko dute Errota-txok, Bereziiki taldeak eta Zazpiki irriatiak.





Hilaren 28an Elgoibarko XXVII. xake txapelketa hasiko da

Zubi-Ondo elkarteak antolatuta, XXVII. Xake Txapelketa jokatu-ko da hilaren 28tik abenduaren 16ra bitartean herriko xake-zaleen artean. Arratsaldeko 4etan hasita, larunbatero jokatu dira xake partiduak Zubi-Ondo elkartearen (Juan Mugerza 26) arratsaldeko 4etatik 6etara bitartean. Suizar erako txapelketa da, zazpi txandatan, jokalaria

bakoitzak ordubetez joka dezake gehienez. Hiru maila daude: 13 urtera arteko haurrak, gaztetxoak eta nagusiak. Izena emateko 74 03 92 zenbakian Mikel Fidalgoz galdetu edo ostegunetan arratsaldeko 6etatik aurrera pista beltzeko egoitzatik pasatu. Izena emateko azken eguna hilaren 26a da.

50 milioiko saria tokatu zen

ONCEko Madalako saltokian joan den astelehenero, hilaren 16ko, zozketan. Zenbaki saritua 64.793a izan zen eta, itxura denez, saritutako 20 kupoiak pertsona askoren artean saldu ziren. Saria, beraz, nahiko banatua geratu ei da. Kupoi bakoitzari bi milioi t'erdiko saria egokitu zaio eta saltzaileak azaldu digunez, kupoi gehien erosi zituen pertsonak bi edo hiru baino ez zituen erosi.

ONCEko saltoki honetan sari handi bat tokatzen den lehendabiziko aldia da.

Benetan pozik dagoela esan digu saltzaileak, "inoiz 50.000 pta.ko sariak ere saldu izan ditut baina horrelako kopururik ez dut sekula banatu. Ea zorteak ez duen alde egiten!".



Hitzaldi naturistak

Datorren astean, hilaren 24, 25, eta 26an, hitzaldi naturistak izango dira Kultur Etxean arratsaldeko 8etan. Bizitza naturalari buruzko saioa izango da, J. Amigó naturistaren ardurapean. Metodo naturalen sendabidea ondo ulertu ahal izateko, saio guztietara joatea gomendatzen da.

AEK Egunera autobusa

Igandean, hilak 22, "Euskal Herri osoan AEK aurrera" lemapean Zumaian ospatuko den AEK Egunerako autobusa antolatu du AEK eskalategiak 800 pta.n. Irteera goizeko 11etan izango da Sigmako zubitik.

Odol ateraldia

Hilaren 27an, ostirala, Gipuzkoako Odol Emailen talde bat ateraldiak egitera etorriko da Pedro Migel Urruzuno 8ko egoitzara. Arratsaldeko 6,30etatik 8,30ak arte izango da odola ateratzeko aukera. Deialdia herritar guztien artean zabaldu nahi du elkarteak, 18 urtetik gorako gazteen artean batez ere. Odola emateaz gain, bazkide babesle ere egin daitekeela gogorarazi nahi dute elkarteko arduradunek.

Gabi Agirregomezkorta:

"Musika maitatzen dudalako jotzen dut"

Gabi Agirregomezkorta "Koska" taldeko kitarrajolea da. Taldea duela 24 urte sortu zen eta ordutik jarraitzen duen bakarra da. Musika oso maite du eta are maiteago jotzea. Gaur egun langabezian dago, hiru hilabete igaro baitira Sigmatik kaleratu

zutenetik. Musika oso gogoko du eta horregatik ematen ditu ordu asko jotzen. Perretxiko zale amorratua ere badela esan digu eta sasoi honetan inguruko txoko gehienak arakatzen omen ditu, perretxikoak etxera eramateko asmotan.


- Nola sortu zen Koska?

- Duela 30 bat urte musika entzun, jarraitu eta gure esperantza talde bat sortzea zan. Gure artian moldatu genuen taldea eta hortik "Expresión Sonora" jaio zan. Lau lagunek osatzen gendun taldia, Alfonso Guillók ahotsa eta baxua, Patxi García abestu, Luis Mari Arakistainek bateria eta nik gitarria. Hiru urte pasatu zian eta pentsau gendun euskeraz abestia eta taldiari izen euskalduna jartzia. Hemendik "Koska" sortu zan. Gero, soldaduzka zala eta gelditxuta egon zan taldia. Buelatatu ginanian bi LP ere kaleratu genitxun. Bilakaera haundixa bizi izan da Koskak eta ordutik hona jende ugari pasau da. Gaur egun oso jende jatorra dao.

- Egia al da Euskadin Rock and Roll-ak ez duela dirudik ematen?

- Bai, guztiz, eta nahiko normala da, Euskal Herrixan trikitixa dalako nagusi. Gainera, jende asko dao talde zalia dana baina ez duenak diskarrik erosten oso garestiak dialako. Badaude bi edo hiru talde profesionalak hortik bizi dianak baina momentuak izaten dia.

- Nola ikasi zenuen gita-



"Musika zuzenean egiteko lokal bat edukitzea oso aproposa litzateke"

rra jotzen?

- Hasieran, Alfonso eta ni liburuetatik hasi ginan piska bat ikasten. Gerora armonia landu gendun eta honela poliki-poliki gure kabuz eta ordu asko sartuz ikasi naban gitarria jotzen.

- Konposatu ala jo?

- Desberdina da. Azken finean musika egiten da jotzeko eta azken hau oso inportantia da. Diferentzia bakarra, lana zeuria danian beste indar batekin jotzen dozula, bakoitzak bere gauzak gehixao maitatzen dituela-

ko.

- Zein musikari gustatzen zaizu?

- Denetik. Rock-a, blues-a, jazz-a... Lehenengo taldeetatik The Kings. Ikusi dudan azken kontzertua Pretenders-ena izan da eta oso ondo egon zan.

- Eta bakalaoa delakoa?

-Bat ere ez, hori ez da musika. Musika zatarr hartu eta oraindik zatarratu jartzen dabe. Moda luze bat da, estiloa jarri dabe, jazkeran, musikan...

- Nola ikusten duzu gaur egun musika industria?

- Musikaren asuntua

nahiko kontrolatua dao. Industriek merkatu guztiak antolatuta ditzuzte. Azken batian, industriek erabakitzen dabe guk zer entzun bihar doun, irratian, telebistan... musika berdina jartzen dabe eta.

- Zer adierazi nahi duzu musikarekin?

- Musikak berezko lengoia eta esanahi propioa daka. Musikiakin kristoren "kuelgia" daukat, asko gustatzen jata. Musika maitatzen dotelako jotzen dot eta asko gustatzen jatalako.

- Kitarrajole on batek zer behar du?

- Ez dakit, ni ikasten ari naiz eta beharbada bizitza osoa pasauko dot ikasten. Dena den, gustatu ein bihar jatzu. Oso konstantea eta disziplinatua izan bihar dozu, eta ordu asko sartu.

- Elgoibarren zer botatzen da faltan?

- Musikarentzat oso garrantzitsua da jotzea. Eta horretarako lokal bat egon biharko litzake, denek jotzeko aukera izateko. Musika zuzenian eitzeke lokal bat oso aproposa litzateke, "jazz sesion" bat dela edo talde ezberdineta-ko musikariak elkarrekin jo dezaten. Ez dakit, beharbada Elgoibar txikiegixa da...

MAITE IRIONDO

Zcj cttcmBERRI

3. ADINEKOEI ZUZENDUTAKO 16. GEHIGARRIA



Urriaren 6an Makailo Txapelketa izan zen Jubilatuen Etxean Gipuzkoako Jubilatuen Elkarteak antolatuta. Orain hilabete batzuk herrika sailkatu zirenek hartu zuten parte. Eibartik bi bikote aurkeztu ziren, Mutrikutik bat eta beste bat Elgoibartik. Denak ikusi genituen amantala jantzi eta kazuelak poliki-poliki eragiten, makailoaren saltsa loditzen. Usain ederra zuten kazuela guztiek eta itxura ere ezin hobea. Txarridunako eta Gabiko jatetxeetako sukaldariak izan ziren epaimahaiko, Eibarko Makailo Elkarteko Lehendakariarekin batera. Ez zuten, ez, lan makala izan onena aukeratzen. Azkenean, saria mutrikuarrek jaso zuten, Andoni Urresti eta Rosina Elezgarai senar-emazteak, hain zuzen.

MOTZAK MOTZAK MOTZAK

Datorren hilean hasiko dira dantzaldiak

- Datorren hilaren 5ean, igandea, ohiko dantzaldiak hasiko dira Jubilatuen etxean. Azarotik aurrera, igandero arratsaldeko 6etatik 9etara bitartean gerria eta hankak batera eta bestera eragiteko aukera izango dute herriko nagusiek. Dantzarako giroa sortzeko ardura Gelatxo taldeak izango du.

Omenaldia 80 urte baino gehiago dituztenei

- Aurten ere omenaldia egingo zaie bai 80 urtetik gora dutenei bai eta urrezko eztaiak betetzen dituztenei ere. Omenaldia abenduaren 15ean, ostirala, izango da. Bazkarira joan nahi duenak goizeko 10etatik 12etara bitartean Biltokira joan behar du. 80 urte baino gehiago dituenak NANA erakutsi behar du eta urrezko eztaiak betetzen dituztenek Familia Liburua.

PEPITA PEREZ-CORTES:

'Belgikako Fabiola erreginentzat kozinatu izan dut'

Perez-Cortes abizena musikarekin lotuta dago neurri handi batean, Julio Perez-Cortes Bandako zuzendaria izan baitzen urte askotan. Pepita haren alaba da, 69 urte ditu. Hitz azkarra eta arina du eta bere bizitzaren errebasua egiterakoan hiru hitz errepikatu ditu etengabean "lana, poza eta negarra". Pepitak Espainiako enbaxadan egin zuen lan. Parisen lehenengo eta Bruselaren ondoren. Sukaldaritzaren eskutik, makina bat gonbidatu ezagunen ahoak gozatu zituen.

- Jaiotzez Badajoz-ekoa.

- Bai. 18 urte nituenean nire aitak oposaketa batzuk atera zituen eta Elgoibarrera etorri ginen. Aita Bandako zuzendaria zen.

- Nolatan aldegin zenuen Parisera?

- Neskame joan nintzen Donostiara. Eta handik Madrilera. Madrilen Espainiako enbaxadoreen etxera joatea eskaini zidaten, Parisera.

- Eta?

- Alde batetik ondo. Haurrak beti gustatu izan zaizkit izugarri baina hizkuntza ez nuen ezagutzen, herrialdea ere ezezaguna zen... Negar asko egin nuen. Askotan oroitzen naiz merkatura joan eta nola denak kolatzen zitzaizkidan. Nik ez nekien ezer, hitzik ere ez! Eta, noski, jendea aprobetxatu egiten zen.

- Umeak zaintzetik nola pasa zi-

nen sukaldera?

- Ni etxean edozertarako nengoen. Berez, nire ardurak haurrak zaintzea zen. Baina, zerbait josi beharra zegoenean, nik josten nuen. Sukaldean norbaiten laguntza behar zenean ere han zegoen Pepita... Horrela, bada, poliki-poliki, sukaldaritzan oso ona nintzen, han geratu nintzen.

- Nahiz eta zuri ez gustatu.

- Ez, egia da. Ez zitzaidan bat ere gustatzen. Baina, esku ona neukan... Donostian, Nazareten sukaldaritzak ikastaro bat egin nuen eta gero, nik beti izan dut sormen eta imaginazio handia eta gauza berriak egiten nituen.

- Primerakoak, gainera.

- Bai. Enbaxadan jatorduei garrantzi handia ematen zaie. Ahotik ez zik bistatik ere jaten dugu eta asko azpimarratzen zuten hori. Gogoan daukat behin Lubina txanpai erara eta Faisaia jarri nituenean, demaseko txaloak izan nituela. Jendea zoriontzera etorri zitzaidan.

- Esaiguzu, zein jende motarentzat kozinatzen zenuen?

- Edonorentzat. Diplomakoentzat,



Turkiako enbaxadoreentzat hiru urte egin nuen lan



Estatuko jefeentzat, erregeentzat...

- Esate baterako?

- Albako Dukesa edo Fabiola erregina.

- Lan asko egiteaz gain, disfrutatu ere egingo zenuen.

- Ez gehiegi. Parisen izan ginenean, Espainiako enbaxadakoek gain, Turkiakoak eta Portugalekoak ere bazeuden. Zerbitzari bakoitzak bere logela zeukan eta han elkartzeko ginen denak. Ez ginen ia elkar ulertzen baina barre ugari egiten genuen! Gainontzean, egun osoa ematen nuen lanean, goizeko 7etan hasi eta gaueko 2ak arte askotan.

- Eta ezkondu?

- Horretarako ere ez nuen denborarik izan! Edo, beharbada, ez nuen pertsona aproposa aurkitu.

- Noiz utzi zenuen enbaxada?

- Bruselasetik Parisera joateko agindu zioten ni nengoen familiari eta ez joatea erabaki nuen. Urte asko neramatzan, lan gehiegi egin nuen eta lasai bizitzea nahi nuen. Gainera, Espainiako erregeentzat rezeptio bat prestatu behar zen eta horrenbeste ardurak beldurra eman zidan.

- Eta orain?

- Orain lasai-lasai bizi naiz.

Bizi kalitate hobe baten bila

Urriari hasi eta abendura bitartean, Inersok eta Diputazioak bainuetxe ezberdinetan egonaldiak antolatzen dituzte. Horien artean Zestoako bainuetxean. Bertan elgoibartar batek lan egiten duela aprobetxatuz berarekin izan gara ur termalen onuren berri zehatza jasotzeko asmoz. Maria Jesus Urain 31 urteko elgoibartarra da. Medikuntza ikasi eta ekainetik hasita Zestoan ari da lanean. Bainuetxe batean bainu bat hartzeak ez dakartza onurak nagusientzat bakarrik, alderantziz, jakin ahal izan dugunez, gazte asko eta asko dago astero-astero hurreratzeko dena.

Maria Jesus Urain Medikua

- Zeintzuk dira hemen ikusten dituzuen gaitzik arruntenak?
- Artrosia eta erreuma. Horiek dira nagusien artean gehien izaten diren arazoak. Gehienak lagunei entzun izan diete bainuetxeak oso ondo daudela eta beraiek ere probatu nahi izaten dute.
- Eta zein tratamendu dute?
- Hidrologian oinarritzen gara, ur termalarekin egiten dugu lan.

- Artikulazio arazoentzat batez ere oso ona da, bizkarraren zat...
 - Tratatzen hasi aurretik zuen kontsultatik pasa behar ko dute, ez?
 - Bai, beti.



- Instalazio bazuetan ura oso beroa izaten da eta bihotzeko arazoak dituztenentzat ez dira komenigarriak. Neurtu egin behar izaten da denbora.
- Eta ura edateak ba al du mugarik?
- Bai. Jende askok uste du ura naturala denez nahi beste edan daitekeela inolako arazorik gabe, baina ez da horrela. Urak gatz asko dauka eta tentsio altua dutenentzat, adibidez, nahikoa arriskutsua da bai eta ultzera dutenentzat ere. Aldiz, gibleko arazoak dituztenentzat ezin hobea da.
- Zenbat denbora behar da hobekuntzaren bat nabaritzeko?
- 15 egun inguru. Hona etorri eta tratamendua jartzen diegu, bainuak, masaiak, ura baraurik eguneroko edatea...
- Desgaste handia suposatzen al du?
- Desgastea baino nekea. Nahi eta nahi ez, ur beroak dira, txorro askore-

- kin eta horrek tentsioa jaisten du, nekatu egiten du. Gazte asko etortzen da zirkuitu osoa egiteko asmoz eta lur jota bueltatzen da.
- Urak zein tenperatura du?
- 33 eta 37 gradu bitartean pistinetan. Horiez gain sauna ere badago, bainu turkoak, katarroentzat oso onak direnak... Hidromasaia, berriaz, kabina indibidualtan hartzen da eta ura 40 gradutan egoten da. Azken hau erlaxanteagoa da.
- Uraren bidez sendatu ala hobetu?
- Artrosi bat ez da sendatzen baina mobilitate aldetik asko hobetzen da. Apenas mugitu ezinik etortzen dira eta askoz arinago joaten. Bizi kalitatea asko hobetzen da. Gainera, uraz gain, giroa ere oso ona da, lagunak egiten dituzte, gimnasia dute, egunerokotasunarekin apurtzen dute...

HIDROTERAPIAK ETA EZAUGARRIAK

- **URA EDATEA:** Besikula, gibela, idorreria, digestioa, erreumatismoa...
- **HIDROMASAIA:** Erlaxantea
- **DUTXA TXORROTAN:** 37 eta 41 gradu bitarteko ur txorroa. Giharreak erlaxatzen dira eta gorputzarentzat estimulu bat da.
- **DUTXA BIRIBILA:** Azaleko toxinak ezabatzen ditu eta zirkulazio fisikoa zein emozionala aktibatzen du.
- **JACUZZIAK:** Masaia uraren bidez. Zirkulazioa aktibatzeko, giharre eta artikulazioetako mina kentzen du eta tentsioa askatzen du estresaren aurka oso ona izanik.
- **HIDROGIM:** 34 gradutako pistina. Ur txorroak ditu etengabeko presioan. Agarrotamientoak askatzen ditu, garondo eta lumbareentzako oso ona.
- **BAINU TURKOA:** Lurrin bainua. Erlaxantea eta estetikarako oso ona. Izerdia botatzeko oso ona. Odolaren zirkulazioa estimulatu du.
- **SANARIUM-A:** Asma, bronkitisa, erreuma, azal lehorra, tentsioa, giharretako debilitadea, depresioa eta antsiedade kasuetarako.
- **SAUNA:** Toxinak botatzeko. Azala garbitzeko bai eta erreuma, artrosia, gota eta ezturen aurka ere.
- **LOKATS-PARAFANGOAK:** Erreuma eta artrosia-entzat.
- **MASAIK/KIROMASAIK:** Tentsio guztia biltzen duen sistema nerbioa erlaxatzen du.
- **PISTINA TERMALA:** 30-32 gradutara. Igeri egiteko.

Kolesterola

I. mendean Plinio naturistak esaten zuenez, zaharrak 100 urtera iristearren arrazoia oliba olioaren kontsumoa zen. Bi kolesterol mota daude: ona eta txarra. Bien batuketak ematen digu kolesterol kopuru osoa. Kolesterol onetik asko badaukagu, ez dago arazorik. Txarra bada nabarmentzen dena, arterioesklerosia izateko arriskua gehitu egiten da, besteak beste. Hainbat eta hainbat faktorek eragiten dute arterioesklerosia. Herentzia, sexua eta adinak badute eraginik baina hauen aurrean ezin dugu ezer egin. Baina, badaude beste zenbait ekidin ditza-kegunak. Etsairik handienak aktibitate fisiko eza, obesitatea, estresa eta tabakoa dira. Hortaz, egunero ariketa fisiko piska bat egitea komeni da bai eta pisua gal-zea ere horretarako ezinbestekoa delarik kalorien kontsumoa jais-tea, batez ere hidrato karbonoak eta alkohola. Erretzen uzteak ere kolesterola jaisten du.

Hona hemen hainbat aholku:

- Ahalik eta gutxien jan arraultza, enbutidoa, txerria, bildotsa eta txahalaren haragi koi-petsua.
- Dieta normal batek ez du sku-la %30 baino koipe gehiago izan behar eta kopuru horretatik heren bat bakarrik izan daiteke animalien koipea.
- Oliba olioak kontsumitu, beti

ere arto olioarekin nahastuz, az-ken honek kolesterol txarra jais-ten baitu.

- Fibra asko kontsumitu fruta, barazki eta zerealen bidez.
- Egunean bi azenario jateak gizakiak beharrezko duen A bita-mina ematen du, arterioesklero-siaren aurka bikaina dena.
- Naranja bat, kiwi bat eta to-mate bat egunero jateak beha-rezko C bitamina kopurua ema-ten du.
- Gariaren muskilak eta mues-liak C bitamina ematen dute.
- Arrain urdina astean birritan jan behar da kolesterola jaisteko.
- Astean ez da bi arraultza bai-no gehiago jatea komeni.
- Hobe da koipearen kontsu-moa kontrolatzea, kolesterolik ga-beko produktuak direla dioten etiketez fidatzea baino.
- Ez fidatu koipe begetala ba-karrik dutela dioten produktuez. Koko olioak izan daiteke eta honek kolesterola igotzen du.
- Ez jan gozo gehiegi, ez pastel ez eta esneopilik ere.
- Kolesterola jaisteko hobeto da elikadura aproposa jarraitzea medikamentuekin hastea baino. Azken hauek kontraindikazioak izaten dituzte eta bizitza guztian hartu behar izaten dira.
- Kolesterola jaisteko onena pi-sua gutxitzea eta kirola egitea di-ra.



MARCIAL IRANZO
(64 urte)

Makailoa saltsan

OSAGAIAK:

- Makailoa
- Olioak
- Berakatzak
- Perexilak eta gatza

PRESTAKUNTZA:

Berakatzak zatitan moztu eta oliotan erre. Ondoren, olioak hozten utzi behar da. Jarraian, makailo zatiak bota, gatz piska bat eta poliki-poliki, alde zuritik egin arte mantendu. Buelta eman eta berdin, beti olioak irakiten hasi gabe eta noizean behin kazuelari eraginez. Eginda dagoenean, perexilak zati txikitzen egin eta gainetik bota. Listo.

Eduardo Urbiola

Karobi tabernakoa

● **Zergatik Karobi?**

▶ Aurreko jabeak izen hori jarri zion eta gu errentan gaudenez izena mantendu egin dogu.

● **Pintxorik gogokoena?**

▶ Gosea baldin badakat edozein hartzen dot.

● **Bazkaltzeko, ardoa ala ura?**

▶ Ura.

● **Eguna ala gaua?** ▶ Bixak.

● **Bizitzako zerekin mozkortuko zinateke?**

▶ Elkartasunarekin mozkortuko nintzake.

● **Noiz egin zenuen azkenengo parranda?**

▶ Pasa dan zapatuan.

● **Eta lehenengo mozkorra noiz hartu zenuen?**

▶ Ez dakit ziur baina uste dot 16 urtekin edo.

● **Ajeak kentzeko zerbait?**

▶ Coca-Cola eta kafe kargaua.

● **Erretzailea zara?** ▶ Bai.

● **Tabernan lan egitearen alde ona?**

▶ Jendia ezagutzeko aukera dakat, oso jende jatorra etortzen baita eta gainera oso harreman onak lantzen dia.

● **Zer gustatuko litzaizuke ospatzea topa eginez?**

▶ Euskal Herriaren bakea.

● **Asteko egun bat?** ▶ Zapatua.

● **Tabernarik gabeko herririk ez dago Euskal Herrian. Zergatik dela uste duzu?** ▶ Aintzinako ohiturak diala uste dot.

● **Nora ez zinateke joango oportetara?**

▶ Niri toki guztiak ezagutzia gustauko litzaidake.

● **Zure esku balego zer aldatuko zenuke herrian?**

▶ Gaztientzako toki bat ipiniko nuke.

● **Elgoibarko txokorik preziatuena?** ▶ Karakate.

● **Tabernan lanean ez zaudenean nora joaten zara?**

▶ Deskantsatzera edo lagunekin.

● **Astean zenbat jai egun dituzu?**

▶ Egun bat bera ere ez, baina turnuak eitzen ditxugu denbora libria eukitzeko.



MAITE IRIONDO

EUSKAL HERRIKO TXIRRINDULARIAK

DOINUA:

Ari naizela ari naizela

Aspaldi honetan Euskal Herria beteta dago irabazlez
Olano munduko txapelduna izan dugu ustegabez
eta Indurain handia berriz beti bezela ondo ta errez honela segi dezaten bieie eskatzen diet mesedez.

Txapelketari atera die orain hainbeste etekin
Colombiatik etorri dira biak medaila banakin
baina herriak gauza bat nahi du bere indar guziakin
ea hurrena joaten diren Euskadiko mailotakin.



ALBERTO GONZALEZ



*Familiakoren bat edo lagunaren bat hiltzen bazaizu
BARRENEK sentimenduan lagundu eta eskelak, urteurrenak
edo esker onak azaltzeko toki bat eskaintzen dizu.*

Santa Klarako pasabidea 17 metro luzatuko dute

Ekainean hasi behar zuten Santa Klarako gurutzebidean egitekoak ziren obrek. Baina, arazoak tarteko, urriaren amaierara arte, gutxienez, ez dira hasiko. Iraupenari dagokionean, berriz, sei hilabetez luza daitezkeela jakin dugu.

Rotonda bat egiteko asmoa dago. Halere, Pedro Mata udalerriko aparajadorearen hitzetan, "ez da San Antolin edo Maltzagakoa bezalako rotonda izango. Kasu honetan, Markinara joateko bide berria egingo da, sarrera hobetuko da, norabidea aldatzeko aukera egongo da eta abar". Horretarako, gaur egun toki horretan kokatzen diren bi eraikuntzak bota egingo dira. Obra Udalak, Diputazioak eta Konbentuko etxeak egiten ari den Promotorak, Iratik, finantziatuko dute. Aurrekontuaren zenbatekoa 125 milioikoa da.

Oinezkoentzako pasabidea

Diputazioaren kargu dago errepidea, galipota, argizatzea, rotonda eta abar egitea. Udalaren esku dago



■ ■ Rotonda egiteko bi eraikuntzak bota behar dituzte.

oinezkoentzat gaur egun dagoen pasoa hobetzea. Izan ere, gaur egun 10 metroko luzera duen tunelak amaitzean 27 metro izango ditu eta zabaleran, 2,20 metrotik 3,60 izatera pasako da. Hasieran eta arau subsidiarioen arabera, oinezkoentzako pasabide bat eraikitzekotan ziren errepide gainera baina mementuz ez da gauzatuko, lur azpikoarekin nahikoa baita. Bestalde, promotorak hormak eraikiko ditu, plataformak, jardinak... Obra guztia enpresa

bakar bati emateko asmoa dago eta mementuz Udala eta Diputazioa ados jarri dira Moyuaren esku lagatzeko.

Obrek irauten duten bitartean, logikoki, zenbait arazo sortuko dira bai trafikoarentzat bai eta oinezkoentzat ere. Hori dela eta, segurtasuna bermatzeko beharrezko neurriak hartuko dira. Gainera, badirudi arazoak luza daitezkeela San Migeleko errekaostari dagozkion obrak ere garai horretan hasiko baitira.



IPINTZA

Pinturak

DEKORATZAILEA

- Pintura eta paperen salmenta
- Moksetak eta sintasolak jartzen ditugu
- Zoru eta hormen apaindurak
- kortinak saldu eta ipini
- kortinen erakusketa Errosario kaleko 7an

Foruen Plaza 4, ELGOIBAR. Tel . 74 04 40

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behe. Tel.74 28 74 - 74 05 70

TEXTIL HOGAR LAGUNAK

DISEINUA
eta

Oihalgintzan zure etxerako behar duzun guztia daukagu.

Olaso kalea 54. Tel: 74 44 57 ELGOIBAR

Madalako iturria

■ Madalako plazatxoan, Txarriduna parean San Lazaro Erresidentzia eta eliza daude. Iriondo tabernako horma batean, berriz, isurki bakarreko iturri publiko txiki bat dago.

■ Kararriz eginiko eraikin txiki honek ezaugarri neoklasikoak ditu. Duela urte batzuk arte metalezko hoditik etengabebotatzen zuen ura baina, osasun neurri minimoak betetzen ez zituenenez, urik gabe egon zen garai batean. Gaur egun, ordea, edan daiteke bertatik erortzen den ura.

■ Iturria erretaila txiki bat beza' dago antolatua hiru gorputz bereizten direlarik. Behean, predela, harlauza batez osatua eta honi itsatsia eta bere aurrean aska bat dago. Erdian, gorputz nagusian, ertzak molduratuak daude eta hodiak inguruan erliebe xume batez landutako landare estilizatua dago. Atikoan, goian, frontoiti klasikoa, oso fina eta dekorazi neurrian landuta du eta tinpanoaren erdian 1883 urteko data irakur daiteke.

■ 60. hamarkadan erreminta makinaren garapen handiaren garaian, goizeko zortziak eta arratsaldeko ordu bat t'erdietan egunetan, Madalako iturri honen aurrean inguruko tailerretako pintxeak ilaran egoten ziren euren txangilak Upaitza inguruko ur freskuaz betetzeko. Geroago iritsi zen uraren krisia, Coca-Cola

amerikarra nagusitu zelarik eta pintxeen desagerpena izan zen arrazoi tekniko-ekonomikoengatik.

PELLO ARRIETA



Urban Konde Isasi (1919-1991)



- 1919. urteko maiatzaren 25ean jaio zen Ermuan.
- Bere sendia 1924. urtean etorri zen Elgoibarrera bizitzera.
- Pertsonaia oso ezaguna izan zen herrian. Kondia enpresaren sortzaile izan zen, 1952. urtean. Lehendabiziko bi urteetan nekazal tresnak fabrikatu zituzten. Ondoren fresadora eta zentru mekanizatuekin buru-belarri hasi ziren.
- 1976an, jauzi kualitatibo izugarria eman zuen Kondiak, fresadora batean kontrol numerikoa ezarri zuen Estatuko lehen enpresa izan baitzen.
- Pilota oso gogoko zuen. Bere trebetasunen artean aipagarriena "hankabea" zen.
- Gizon apala, Elgoibar barru-barrutik maite zuen. Dantzari taldean egiten zuen dantza, eta Bereziartua musikoarekin ere aritu zen Bandan. Tronpetista nagusia zen.
- Bertsoak izugarri gustatzen zitzaizkion. Bertsozale amorratua zen.
- Mendizaletasuna ere oso gogoko zuen.
- 1991ko abenduaren 9an hil zen.

XABIER

ILEAPAINDEGIA

*Eskatu
eguna eta ordua*

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal



URKIDI
AHOLKULARITZA

ASEGUROAK

Kalamua 12 ELGOIBAR Tel-Fax: 74 18 91

MOTZAK

Txirindularien V. San Pedrora igoyerako emaitzak

Lagun Taldeak antolatuta pasa den ostegun goizean burutu zen V. San Pedrora igoyeran Aitor Etxaniz iritsi zen lehena helmugara, 15 minutu eta 11 segundoko denbora eginez. Bi segundora Jose Mari Fernandez sartu zen eta hirugarren, berriz, Pedro Cerviño. Laugarren Santiago Blanco izan zen eta bosgarren Jesus Garate. Inma Ruiz Teran helmugaratu zen lehen neska izan zen, 19 minutu eta 23 segundoko denborarekin eta azkena, Iñaki Murua veterano elgoibartarra. Plaza Handiko irteeratik 54 txirindulari atera ziren eta bik lasterketa utzi egin behar izan zuten aberia zela-eta. Lasterketa amaieran omenaldi modura, Julian San Juan zenaren emazteari oroigarria eta lore sorta eman zitzaizkion.

Kirol patronatua sortzeko bilera astelehenean

Udal Kirol Zerbitzuak herriko ikas-tetxeetako kirol arduradun, klubetako kide eta kirolaren inguruan dabil-tzan guztien artean bilera baterako deialdia zabaldu nahi du. Udal Kirol Patronatoa sortzekotan dabil Udala eta zenbait urrats landu dira dagoe-neko. Hori dela eta, herritarren proposamen eta ideia ezberdinak jasotzeko egin nahi du Udalak bilera. Proposamen berriak komisiotan eztabaidatuko lirateke eta, aitzitik, bilera inor ere agertuko ez balitz, gaia zuzenean plenoan eztabaidatuko litzateke. Bilera hilaren 23an Kultur Etxean izango da arratsaldeko 7etan.



Jabi Mugerza:

"Ilusio haundixa dakat datorren denboraldirako"

■ **Denboraldia prestatzen hasi zara.** - Bai, denboraldixa febreruan bukaeran hasten da, urrirarte. Negua prestatzen ematen dou, gimnasiua, mendixa, pistinia, pala... danetik. Abenduan karreterara begira, bizikletakin entrenatzen hasten gera.

■ **Txirindulariaren hankak izaten dira landuenak.** - Baina goiko partia ere inportantia da, danetik euki bihar da. Abdominalak, dorsalak, besuak... dana prestau bihar da.

■ **Aurten zer itxaropen?** - Ilusiuia dakat ze, iaz hiru karrera bakarrik korritxu nitxun. Istripua euki naban, kotxiak harrapau ninduan eta ziharo desmoralizata bukatu naban.

■ **Denboraldi eskasa, beraz.** - Ez naban ezer ein. Horregatik datorren denboraldirako gauzak eitzeke gogua dakat. Ondo ikusten dot nere burua baina gero ez dakit nola erantzungo doten.

■ **Lesioen kalte psikikoa, fisikoa baino handiagoa izaten omen da.** - Bai, hola da. Dakazun ilusio guztia, hainbeste preparazio, eta gero zeozer pasatzen jatzu eta desmoralizatuia haundixa da.

■ **Benetan da txirindularitza kirol-lik gogorrena?**

- Bakarka eitzen dan kirola da. Futbolian ekipuan eitzen da dana. Hemen sakrifiziua zuria da. Ekipua badakagu baina



bakoitza herri batekua danez, entrenamenduak nork bere aldetik eitzen ditxu. Esfortzua haundixa da.

■ **Zein terrenotan defendatzen zara ondoen?** - "Todoterreno" naitzela esan leike. Eskoladorea nitzala esaten ziaten baina danetan ondo ibiltzen naiz kontrarrelojian izan ezik. Hauetan esfortzua dosifikatzen jakin bihar dozu, indarra kontrolau bihar dozu eta hori kontrolatzia falta jata neri.

■ **Afizionatuetan elgoibartar bakarra.** - Jendiak esaten dau jubenetatik afizionatuetara saltua kristona dala. Aldia badao, baina piska bat serixo entrenatzen badozu... Askok laga eitzen dabe jubenetan, ze ekipua aurkitzia ere ez da erreza.

■ **Eta profesioaletara?** - Afizionatuetan egotia gogorra bada... profesioaletara pasatzia bai dala zaila! Karrerak irabazi eta irabazi ein

bihar dia. Ez da bakarrik ona izatia eta laugarren edo bosgarren izatia. Lehenengua izan bihar zera eta gainera, suertia ere bihar da, haundixa. Kontauak dia profesioaletara pasatzen dianak.

- Adina: 19
- Olano ala Indurain? Zaila esatia. Bixak dia onak
- Bizikleta marka: Contini
- Beste kirol bat: Ehiza

Kafetegia

MEKANOSA
Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Larunbatean hasiko dira eskolarterko jokoak

OHOko 570 inguru hurrek eskolarterko jokoan 20. edizioari emango diote hasiera larunbatean. Eskubaloia, areto futbola eta saskibaloia dagozkien partidua jokatzeko hasiko dira hemendik eta ekainera arte, larunbat goizero. Hiru kategoriatan banatuta, kirola eskolaren esparruan burutzea



■ ■ la 1000 haur inguruk parte hartzen dute urtero eskolarterko jokoetan.

Hezkuntza ertainera iritsi arte, kirola eskolan burutzea eta ez federatutako klubetan litzateke Udal Kirol Zerbitzuaren nahia. Kirol guztietan, futboleant izan ezik, lortu da dagoeneko hurrek eskolarterko taldeetan jokatzeko. Gaur egun C. D. elkarteant bakarrik dago infantilen kategoriant. Udalaren nahia 13 urtera arte haur guztiek eskolarterko taldeant jolastea da eta ez klubetan.

Hiru kirol

Taldeakakak hiru kiroletan aritu behar izaten dute derrigorrez ikasturteant zehar 3. mailatik 8era bitarteko neska-mutilek. Haeuz gain, atletismoa, txirrindularitza, pilota, xakea, igeriketanta, judoanta eta mendizaletasuna dituzte aukerant. Partidetza aldetik, guztira, taldeakakak zain bakarkako kiroletan, 1000 haur inguru aritzen dira urtero. Erdiak edo, 570 bat, eskubaloiant,

saskibaloiant eta areto futboleant jarduten dute eta gainontzeko guztiek aipatutako bakarkako kiroletan.

Eskolarterko jokoant antolaketaz lanetan, Udal Kirol Zerbitzuaz gain, hiru ikastetxeek eta herriko hainbat guraso eta elkartek laguntzen dute. Materiala Udalak jarri ohi du eta borondatez lan egiten duten pertsona askoren laguntza ezinbestekoa izaten da den-dena antolatzeko.

TALDE KOPURUA KATEGORIA BAKOITZEAN

■ **BENJAMINAK** (3. eta 4. mailak): 13 talde (mutiletan, 7, eta nesketan, 6)

■ **ALEBINAK** (5. eta 6. mailak): 16 talde (9 mutilenak eta 7 neskenak)

■ **INFANTILAK** (7. eta 8. mailak): 18 talde (10 mutilenak eta 8 neskenak)

Futbola

Haundi 4 - Zamudio 1
Eibar 1 - Elgoibar 0 (1. errejionala)
Antoniano 0 - Elgoibar 0 (Neskak)
S. Tomas Lizeoa 3 - Elgoibar 3 (Jubenilak)
Anaitasuna 1 - Elgoibar 0 (Kadeteak)
Elgoibar 2 - Bergara 1 (Infantilak)

Eskubaloia

Pulpo 12 - Pagoaga Elgoibar 19 (Kad. nes.)
Elgoibar 23 - Bergara 16 (Kad. mut.)
Elgoibar 22 - Leizaran 12 (Jubenilak)
Ordizia 23 - Txankakua 25 (Seniorrak)

Futbitoa

Lucky Lucke 6 - Aterpe 2
Pedruskos 4 - Berrogei Duro 2
PSK 4 - Oraiko Disco 0
S. Karapola 2 - S. Pitxote 2
King Kong 5 - Kaskis 1

Areto Futbola

Astilleru 4 - Elgoibar F.S. 2 (1. maila)
Ryder 3 - Elgoibar F.S. 2 (2. maila)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 21

12,00 Elgoibar - Real Sociedad (Kadeteak)
16,00 Elgoibar - Azkuene (1. errej.)
17,45 Elgoibar - La Salle (Jubenilak)

Igandea, 22

10,00 Gazteak - Zestua (Jubenilak)
12,00 Eibartarrak - Gernika (Neskak)
15,15 Gazteak - Zestua (2. errejionala)
17,00 Elgoibar - Intxaurdi (Neskak)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 22 (Senior mutilak)

17,30 Txankakua Elgoibar - Jauja

Futbitoa, Urсандin

Igandea, 22 (Arbitraia: Lucky Luke)

10,00 Ametsa - Sanroketarra

11,00 Arrejuntaos - Ametsa

Sanroketarra - Orbela

12,00 Kosakos - Roke

Aldavas - Udaberri

Areto Futbola, Kiroldegian

Ostirala, 20

22,00 Elgoibar F.S. - Laskurain (2. maila)

23,00 Elgoibar F.S. - Sidreria donostiarra (1. maila)

Pilota, Ikastolan

Ostirala, 20 (Gipuzkoako txapelketa)

22,00 Lagunak-Aretxabaleta (Kadeteak)

Lagunak - Bergara (Jubenilak)

Lagunak - Betii Poz (Seniorrak)

Saskibaloia, Kiroldegian

Larunbata, 21

19,00 Txankakua Saskibaloia Taldea - Zumaia

Zinea euskaraz OHoko haurrentzat

Udal Kultur Zerbitzuak herriko OHoko ikastetxeetako haurrentzako zine emankizunak antolatu ditu. "Euskara Zine Aretoetara" (E.Z.A.) izena du OHoko haurrentzako programak eta *Tinko* izeneko elkarteak gestionatzen du. Lehen eta bigarren zikloko haurrek lau pelikula, guztiak euskaraz, ikusteko aukera izango dute 95/96 ikasturtean zehar. Lehena "Corina Corina" izenburukoa da, eta emankizun eguna hilaren 25a. Datozen filmeak "Haur Lehoia", "Ipar haizearen itzulera" eta "Alargunen gailurra" dira; azken hau BBB, UBI eta LHko ikasleentzat ere bai. Sarrera 300 pta.koa da. Saio guztietarako sarrerak eskuratuz gero, 250 pta.n lortu ahal izango da sarrera. Udalak 70 pta.ko diru laguntza emango dio *Tinko* elkarteari haur eta saio bakoitzeko, gero, jasotako dirua, filme berrien bikoizketak ekoizteko erabiliko dituelarik. Euskara zinematokietan Programaren helburua euskara zine-aretoetan sarraraztea da, euskaraz bikoiztutako pelikulen bidez. *Tinko* izeneko lukroasmorik gabeko elkarte honek lau filme ditu jadanik euskaratuak, eta aurtengo emankizunei esker lortzen duten dirua, datorren ikasturterako beste lau filme berri bikoizteko erabiliko dute.



Larunbatero programari ekingo dio Atxutxiamaika Begirale Taldeak



■ ■ Komunikabideen aurreko aurkezpena orijinala izan zen. Maskota eta guzti agertu ziren Atxutxiamaika Begirale Taldeko zenbait kide.

Haurren eta gaztetxoaren denbora libre programatzeko eta antolatzeak gero eta garrantzi handiagoa duela begibistakoa da. Duela urtebete Atxutxiamaika Begirale Taldea sortu zen Elgoibarko Izarraren barruan haurren aisialdia euskaraz antolatzeko. Gaur egun erroto xamar dago taldea eta 31 begirale tituludunek osatzen dute. Larunbatean, hilak 21, OHoko haurrak arratsaldeko 4etan Plaza Handian elkartuko dira, hiru orduz, "Larunbatero" izeneko programari hasiera emateko.

Larunbak goizak euskaraz jolasteko, lagunartean aritzeko eta azken finean, giza-emakume bezala hezitzeko eta gizartean integratzeko asmoarekin, larunbat honetatik aurrera abenduaren 16ra arte, hiru bat orduz ekingo dute OHoko haurrek. Kanean, Kultur Etxean eta Pilar ikastetxeko patioan jolas, kanta eta bestelako ekintzekin ondo baino hobeto igaroko dituzte larunbat goizak. Izena emateko Elgoibarko Izarra elkartera zuzendu edo 74 16 26 zebakira deitu.

Begirale taldea osatzen duten neska-mutilek, guztiak, begirale ikastaroa egina dute. Maria Jesus Iranzo da haien zuzendaria eta guztiak dira

19 eta 26 urte bitartekoak. Eskolatik kanpo, aisialdian ere euskara erabiltzea dute helburu.

Aisialdi plangintza

Atxutxiamaika Begirale taldeak hainbat ekintza programatuta ditu urteari begira. Aipatutako "Larunbatero" egitasmoaz gain, Udaleku Irekiak eta Itxiak eta Gabonetako iharduerak antolatu ohi dituzte. Datorren urtean udan ezezik, Aste Santuan ere udalekuak prestatuko dituzte eta hurrengo urtean irailean ere bai. Aisialdi programa honez aparte, bestelako zerbitzurik ere eskaintzen du Begirale Taldeak.

Begirale Zerbitzua

Herriko edozein elkarte haurrentzako ekintzaren bat antolatu nahi badu, Begirale Taldearekin harremanetan jar daiteke antolakuntza lana euren eskuetan uzteko. Begirale lana bakar-bakarrrik edo/eta begirale zerbitzua ezezik, aisialdiko ekintzen programazioa ere kontratatzeke aukera eskaintzen dute. San Bartolome jaietako Haurren Eguneko hainbat ekintza Begirale Taldearen ardurapean burutu ziren eta Tabernariak antolatutako larunbat arratsaldeko ekintzak eurek programatutakoak izan ziren.

Picasso txikiak bezala

Ez dira sekula Picasso, Toulouse-Lautrec edo Gaugen bezain famatuak izango baina dudarik ez dago zaletasunik ez zaiela falta. Egur Tailerrak antolatu duen oleo ikastaroan ari direnez ari gara. Hogeita hamar herritar guztira, haur, gazte, heldu eta jubilatua. Hiru astetan zehar arratsaldero, pintzela eta paleta eskuan hartuta, oinarritzko koloreak nahastuz oleoaren teknikak menperatzeko lehen urratsak emango dituzte.

Sekulako arrakasta izan dute aurten Egurrek antolatutako ikastaroek. Arte tailerrean urte mordo daraman Maribelek kontatu digunez, “kaballette gehiago erosi behar izan ditugu jendea inoiz baino gehiago etorri baitzaigu. Kultur Etxean egin ditugun erakusketen bidez gure lana ezagutzera eman dugu herrian eta zaletasuna duen jendea ikastaroetara etortzera animatu da”. Marrazki eta oleo ikastaroan izena eman duten pertsonen kopuruak egiaztatzen ditu Maribelen hitzak. “Hogeita hamar pertsona izan ditugu ikastaro bakoitzeko. Kopuru hau ikaragarri handia da kontuan izanda gure azpiegitura eta lokalaren dimentsioak”. Hasieran ikastaroaren zenbatekoa ordaintzen du ikastarokideak eta material guztia, paletak, euskarria, pintzelak, margoak... bertan eskuratzen ditu.

Eibarko irakasle batek ematen ditu klaseak eta ikasleak finak baino finagoak dira. Sarak 9 urte ditu. Irakasleak, Isabelek, erakutsitakoari jarraituz, lapitzarekin ipuin batean agertzen diren dortoka eta

ahatea marrazten ditu. “Lehenengo, arkatzez marraztu eta gero, tenperekin koloreak emango dizkiet, nik nahi ditudan koloreak”.

Iker Argarate jubilatua dago eta eskulanak oso gogoko ditu. “Baltasar soziedadeko eskudua nik eindakua da, marrazkixa eta tallia ere bai”. Ikerrit betidanik gustatu izan zaio margotzea, “zeramikia ere bai baina astixa falta izan jata beti. Oin jubilauta ederki nabil ni”. Egurrera etortzen hasi zen orain dela hiru urte. “Oin bakoitzak bere giltza daka eta nahi dogunian etortzen gera”.



■ ■ Sekulako arrakasta izan dute marrazketa eta oleo ikastaroak.

Urte osoan zehar

Egurrek lau ikastaro ezberdin antolatzen ditu urtero. Marrazki ikastaroa irailean izan da; orain oleoarekin ari dira. Urtarrilean esmaltea edo grabatuaren txanda izango da; urte batean bati buruzko ikastaroa egiten badute, hurrengoan lantzen dute bestea. Eta azkenik akuarela. Ikastaroetara joateaz gain, zaletasuna duen edonork urte osoan zehar dauka pintatzeko aukera. Egurren margotzen jarduten duten askok eta askok, ikastaroan hasi eta jarraitzea erabaki zuten.



■ ■ Oleoaren oinarritzko teknikak barneratu ondoren, norberak adierazi nahi duena pintatzen du.

Lehiaketak

JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA
X. LEHIAKETA antolatu du Gizabide Fundazioak. Euskal Herrian irakaskuntza ertainean ari den edozein ikaslek har dezake parte. Oinarriak norberak bere ikastetxean eskura ditzake. Epea: azaroak 7. Gizabide Fundazioa, Larrin plaza, Aretxabaleta.

Arrasateko Udalak VIII. **ARGAZKI LEHIAKETA** antolatu du. Nahi duenak har dezake parte eta argazkiak zuri-beltzean aurkeztu behar dira. Gaia librea da. Epea: abenduak 1. Kultur Etxea, Urgoiti, 8. Arrasate.

Zapirain Anaiak VII. **BERTSO PAPER LEHIAKETA** antolatu du Errenteriko Udalak. Epea azaroaren amaieran amaitzen da. Informazio gehiago 52 28 08 telefono zenbakian.

Portugaleteko X. **KOMIKI LEHIAKETA** antolatu du Udaleko Kultur eta Gazteria sailak. Nahi dutenek har dezakete parte. Epea: 1996ko urtarrilaren 12a. Informazio gehiago, 94 496 32 11 telefono zenbakian.

Pasaia Hiria **OLERKI LEHIAKETA** antolatu du Pasai Antxoko Udal Liburutegiak. 15 urtetik gorakentzat. Lanak euskaraz nahiz gaztelaniaz idatz daitezke. Gaia librea da. Epea: abenduak 21. Udal Liburutegia, Hamarretxea kalea, 13. Pasai Antxo.

Kontzertuak

Igandean Zumaian **AEK EGUNA** ospatuko da. Besteak beste, Amaia Plazan arratsaldeko 4etan Maixa, Itziar eta Garbiñe, Jesusmai eta Noizbehinka taldeak arituko dira eta 6etan Ama Say eta EH Sukarra. Beheko Plazan, berriz, Drindots taldea izango da arratsaldeko 6etan.

GAZTELEKUAK

Gazteen topalekuak

Aldundiak gazteen topalekuak izango diren Gaztelekuak jartzeko asmoa du Gipuzkoako herri guztietan. Helburua, ekintza sozio-kulturalak bultzatzea da, kontuan izanik 14 eta 30 urte bitarteko neska-mutilen beharrak eta nahiak zeintzuk diren, eurak baitira protagonistak. Gaztelekuen proiektua egiteko hainbat herritako esperien-tziak aztertu dituzte, hala nola, Bartzelonakoa, Zaragozakoa, Ourensekkoa, Altzakoa, Bidebietakoa eta Oñatikoa. Horren arabera, herri bakoitzak duen biztanlegoaren eta beharren arabera Gazteleku bat sortuko litzateke, kontuan hartuz, baita ere, herri bakoitzeko gazteen artean dagoen hartuemana eta dinamika. Azterketa egin eta gero, Diputazioaren hurrengo pausua Gipuzkoako herri guztiekin harremanetan jartzea da, bakoitzaren ezaugarriak ezagutu ahal izateko.

Gaztelekuak eta Gaztetxeak

Orain arte ezagutzen diren Gaztetxeak ez dira Diputazioak aurkeztu dituen proiektuan sartzen. Nolabait esateko eta Gaztedi Saileko diputatua den Arritxu Maraño-en hitzetan, "Gaztetxeak gazteen ekimenaz sorturiko lokalak omen dira, legalak edo ilegalak izan. Gaztelekuak, aldiz, instituzioen babesarekin, instituzioek sortuak dira."



Gaztelekuen berri ba al duzu? Behar al dira?

ROBERTO MEJUTO
17 urte

"Ez dut ezer entzun baina ideia ona dela uste dut. Halere, gazteen artean bereizketa bat dago. 14 urteko gazteek nonbait elkartzeko tokia behar dute, nagusiagoak direnek tabernak behintzat badituzte. Lokalak ere horren arabera izan beharko lirateke".



LUISA M. MARQUEZ
22 urte

"Ez dakit ezer baina oso ondo egongo litzateke. Herri guztietan behar da tokiren bat jende gaztea elkartzeko, hitzegiteko, ekintzak egiteko... Gaztetzat txoko bat den bitartean, primerako ideia iruditzen zait."



Salerosketak

GAC MOTOZIKLETA BAT saltzen dut. Lau urte ditu, beltza eta segurua dauka 96ko maitatza arte. Ia berria dago, 50.000 pta. Ikusteko: CIMDE P. Muguruza 23
☎ 74 08 52 / 74 02 43 Txus

FRIGORIFIKO TXIKI BAT saltzen dut. Estrenatu gabe. 23.000 pta.
☎ 74 01 51

Opel Kadet GSI 1.800 inyección SS-AJ 76.000 km. salgai.
☎ 19 19 54

Motokultor bat (8cc, diesela, (PASCUALI), karroa eta surkadorea. Prezio ona.
☎ 74 11 29

BI AKUMULADORE eta HIRU BEROGAILU salgai. Erabili gabe, egoera oso onean.
☎ 74 09 23

ARMAIRU BAT saldu nahi dut: biltzen den ohea, 6 kajoi, bi sekreter eta abar... Prezio onean.
☎ 74 15 75

Etxebizitzak

PISU BAT ALOKATUKO NUKE Elgoibarren.
☎ 74 21 25 Antxon Salegi

ETXE BAT SALTZEN dut Santa Ana kalean. Egoera oso onean eta igogailuarekin.
☎ 74 36 34 / 74 38 41 Pili

PISU BAT ALOKATU NAHI DUT neska batekin Elgoibarren edo Eibarren.
☎ 74 16 30 Mario Oliva
 Goizez 9,30-13,30

ETXEBIZITZA BAT ALOKATU NAHI DUT Elgoibarren. Altzariak badauzka hobe.
☎ 74 28 36

Pertsona bat behar dut Donostiako OKENDO kalean PISUA konpartitzeko.
☎ 42 51 49

ELGOIBARREN PISUA OSATZEKO pertsona bat behar dugu.
☎ 88 42 59 Alaitz
 (asteburuetan)

LOGELA BAT daukat libre bi oherekin eta arropak ere garbituko nituzke.
☎ 74 09 44

ETXEBIZITZA BAT SALTZEN DUT EULOGIO ESTARTAN. Egoera oso onean dago.
☎ 74 10 46 Maite
 (Gauetz 10etatik 11etara)

Elgoibarren PISU BAT KONPARTITZEKO 2 pertsona behar ditut.
☎ 62 53 77

Ingelerako irakasle batek LOGELA BAT eta pentisio osoa edo sukaldean ibiltzeko aukera nahi ditu. (9 hilabete)
☎ 42 84 06 / 74 02 36 Richard

Lana

Mendaroko baserri batean gaixo bat zaintzeko emakume bat behar da. Egunean ordubete. Hobe Mendarokoa bada.
☎ 10 04 41 Maribel

Neska bat ETXEKO EDOZEIN LAN EGITEKO PREST dago.
☎ 74 33 24 Maite

ANDRE BAT behar da bi pertsona nagusi zaintzeko. Goizeko 9etatik gaueko 9ak arte.
☎ 74 29 30

Garajeak

GARAJE ITXI BAT saltzen dut Arregitorren. 38,19 m²
☎ 74 30 81
 Gaueko 9,30etatik aurrera

Partikularrak

OHoko KLASE PARTIKULARRAK ematen ditugu Elgoibarren.
☎ 68 20 42 / 67 06 49

ARTILE ESKULANGINTZA IKASTAROA emango dugu Goikola baserrian, Lasturren. Interesatuak deitu:
☎ 19 90 82 Karmen

Agurrak

Hilaren 18an urteak bete zituen **Itziar Ondarra** zoriondu nahi dugu bere gelako haur guztiok.

Hilaren 23an urteak bete zituzten **Maidier Diez** eta **Olatz Gonzalezi** zorion bero bat lagun guztien partez.

Urriaren 21ean urteak beteko dituen **Maite Elizbururi** zorionak 5. mailako guztien partez.

Bestelakoak

Hilaren 12an aurkitutako giltz sorta bat ekarri digute **BARRE** Nera. Jabeak Udaltzaingoa aurki ditzake.

Urrezko medaila bat Purisimaren irudiarekin galdu dut. Diruz sarituko da.
☎ 74 03 44

Karitasek BI OHE TXIKI (80 cm/ 90 cm.) koltxoiekin eta **LABADORA** bat behar ditu.
☎ 74 15 09 - 74 12 57

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak.....461111
 Txanda hartzeko.....743354
 Planning-a742950
 Alkoholiko Anonimoak..740385
 D.Y.A (anbulantzia) ..464622
 Gurutze Gorria.....743864
 Mendaroko Ospitalea756264
 Drogomenpekotasun Z. 741008
 Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
 PESA (Eibar).....102131
 Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
 Kirol Zerbitzua744415
 Kultura Zerbitzua742158
 Mendaroko Udala756100
 Ongizate zerbitzua...743736
 Udaletxea741050
 Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
 Elgoibarko Izarra.....741626
 IMI.....741196
 Kontsumo Bulegoa ...743088
 Liburutegia743525
 Musika Eskola742145
 Mintxeta744315
 Parrokia740842
 Polikiroldegia741361
 Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
 Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri Eskola74 08 79
 I.M.H.74 41 32
 Institutua74 02 67
 Ikastola74 44 41
 L.H.I.....74 44 80
 Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
 El Diario Vasco74 40 73
 El Mundo74 27 59
 El Correo Español ...74 10 82
 Egin.....10 84 21
 Zazpiki74 34 74

20 OSTIRALA

22,15 ZINEA
"La niña de tus sueños"
Antolatzailea: Errotatxo

21 LARUNBATA

16,00 "LARUNBATERO" PROGRAMA
OHoko haurrentzat
✓ Plaza Handian
Antolatzailea: Atxutxiamaiaka
Beguirale Taldea

22,30 FOLK KONTZERTUA
Taldea: Suizako "La Rebogne"
✓ Herriko Antzokian
Antolatzailea: Musika eta Dantza
Fundazioa eta Haritz taldea.

22 IGANDEA

9,30 TXIRRINDULARI IRTEERA
✓ Irteera Plaza Handitik
Antolatzailea: Lagun Taldea

10,00 DULTZAINEROEN DIANA

11,00 AEK EGUNERA AUTOBUSA
✓ Irteera Sigmako zubitik

12,30 BANDAREN KONTZERTUA
✓ Herriko Antzokian

13,00 HIESAZ HILDAKOEI OMENALDIA
Haritz Dantzari Taldea, Bertso Eskola, Txalaparta Taldea eta Bereziki taldeekin.
✓ Plaza Handian

Jarraian GIZA KATEA
Antolatzailea: Errotatxo
Laguntzailea: Zazpiki irratia

16,30 ZINEA
"La ley de la frontera"

19,30-22,15 ZINEA
"Una historia del Bronx"

23 ASTELEHENA

19,00 KIROL PATRONATUA SORTZEKO BILERA
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Udal Kirol Zerbitzua

22,15 ZINEA
"Una historia del Bronx"

24 ASTEARTEA

20,00 HITZALDI NATURISTA
Hizlaria: J. Amigó
✓ Kultur Etxean

22,00 ZINEA
"La ley de la frontera"
(Ikuslearen eguna)

25 ASTEAZKENA

09,30-14,30 ZINEA OHOKoentzat
Euskara Zine Aretoetara programa
"Corina, Corina"
✓ Herriko Antzokian

20,00 HITZALDI NATURISTA
Hizlaria: J. Amigó
✓ Kultur Etxean

26 OSTEAGUNA

20,00 HITZALDI NATURISTA
Hizlaria: J. Amigó
✓ Kultur Etxean

20,00 HBren BATZARRA
Gaia: Oldartzen-en II. atalaren barne eztabaida
✓ Kimetz-en

27 OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA
P.M. Urruzuno 8an

22,15 ZINEA
"La jungla de cristal: la venganza"

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
21, larunbata:	Bidasolo	Escala
22, igandea:	Bidasolo	Escalaa
23, astelehena:	Yudego	Yudego
24, asteartea:	Yudego	Yudego
25, asteazkena:	Yudego	Yudego
26, osteguna:	Yudego	Yudego
27, ostirala:	Ormazabal	Ormazabal

OKINDEGIA:

22, igandea: FOTERO



Una historia del Bronx

Zuzendaria: Robert De Niro
Antzeleak: Robert De Niro, Chazz Palminteri.

60. hamarkada. Bronx auzoan, italiarrek bizi diren zonaldean bizi da Calogero bere gurasoekin. Calogero aukozko mafia txikiaren buruzagia den Sonny miresten du. Behin tipo bat hiltzen ikusten du Sonny. Poliziak hiltzailearen izena esateko eskatzen diorean, umea isildu egingo da eta automatikoki Sonny-ren begiko bihurtuko. Aita Sonny-rengandik aldendu dadin saiaturko da, baina alferrik. Mutikoa aitaren eta Sonny-ren irakaspenetatik bere nortasun propioa eratzen joango da.

La ley de la frontera

Zuzendaria: Adolfo Aristarain
Antzeleak: Aitana Sanchez-Gijon, Pere Ponce.

1900. urtean Galizia eta Portugal arteko mugan, bi haur jaiotzen dira. Bata portugesa, Joao, familia dirudun bateko semea, eta bestea galiziarra, Xan, meatzarien semea. Hogeita piku urte eta gero, ihesean dabiltzala, bi mutilak mugan elkartuko dira. Egun batean, "El Argentino" izeneko gaizkilearen berri jakin nahi duen kazetari batekin egingo dute topo; Barbara da bera. Xan eta Joan, gaizkilearen taldekide bailiran jokaturko dute eta Barbarak, "El Argentino"ren taldekideak diren ustean, bat egingo du bi mutilekin.



ORTHOS



HEZKUNTZA FISIKOKO ESPAINIAKO ZENTRUA

KIROL MONITOREENTZAKO FORMAZIO IKASTAROAK 95-96

MATRIKULA ZABALIK • TALDE MURRIZTUAK

- * **HEZKUNTZ FISIKOKO MONITOREA**
- * **AEROBICeko MONITOREA**
- * **KIROL ETA GORPUTZEKO MASAIA BITALA**
- * **MUSKULAZIO ETA KULTURISMO MONITOREA**

ZURE ETORKIZUNA KIROLA DA!!

INFORMAZIOA ETA ERRETSERBAK:

**CLUB
IBAI**

**TELEFONOA
74 07 93**

Santa Ana kalea, 46 • 20870 ELGOIBAR

ORTHOS. (2641/80) 080 42 123 erregistro zenbakiko dekretuaren arabera, Hezkuntz Ministerioak
Baimendutako Zentrua. F.E.J.Y.D.A.-ak eta C.E.-ko F.E.P.D.ak homologatua.



HUSQUARNA
MOTOSERREN
ESKAINZA BEREZIA

ASTIGARRAGA garajea

San Frantzisko 53. Tel. 74 01 86



DESBROZADORA
JAPONIARRAK PREZIO
EZIN HOBEAN

- ✘ Ziklomotore eta motorren salmenta eta konponketa
- ✘ Motoserren salmenta eta konponketa
- ✘ Desbrozadoren salmenta eta konponketa
- ✘ Gurpilen salmenta eta konponketa
- ✘ Bizikleten salmenta eta konponketa





HIRUGARREN ADINERAKO PRODUKTUEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA



LANDETA AUZOA. 20730 AZPEITIA. GIPUZKOA.
TEL. 81 59 03 - 81 27 76 FAX. 81 35 43
(Polikiroldegi parean)

- OHE ARTIKULATUAK
- KOLTZOI BEREZIAK
- DESKANTSURAKO BUTAKAK
- LAGUNTZA TEKNIKOAK:
 - 3. adinerako
 - Minusbaliatarako



BAINURAKO LAGUNTZA
MOTA GUZTIAK.
PERTSONAK
MUGITZEKO GRUA.